

..., 2020ko otsailaren....a

Familia agurgarriok:

Martxoaren 8a dela eta, Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio eta Aia herrietako ikastetxeek eta udalek, elkarrekin, berdintasuna landu, sustatu eta aldarrikatuko dugu. Gai hau ikasturte osoko lanketa den arren, martxoaren 8ari indarra emateko, berariazko lanketa egingo dugu gure ikastetxean. Lanketaz gain, ikastetxean egunari dagokion pankarta eta zapi moreak eskegiko ditugu. Familiei eta herritarrei gurekin bat egitea eta balkoietan zapi moreak jartzea eskatzen dizuegu.

Balkoian jartzeko zapi more bat eskuratu nahiko bazenute, jakizue, ***Udaletxeko Etxezabalako beheko solairuaren sarreran jasotzeko aukera izango duzuela otsailaren 24etik aurrera.***

Berdintasunaren alde elkarrekin garela eskertuz, agur bero bat.

IKASTETXEA